

“ZAZPIAN BEHAR ZUEN”

Nire soina alde batera eta bestera astindu didate jai egunetako trajea janztea bukatu duten arte. Ez da erraza gorpu bat mugitzea. Alkandora zuria jakaren azpitik, ohitura nuen bezala, paparra zabalik. Ahoa zabalduz kotoi zati batzuk sartu didate masailetan, dotoretu egiten omen dute aurpegia, eta ahoa ondo hertsu eta ezpainak kontuz kokatu ondoren, zapi bat lotu didate kokots azpitik eta kalparreraino. “Hemendik pare bat ordura askatu”, esan dio emazteetako batek Kaminori. Ocaso-ko bi emazte eta gizonezkoen artean, ohe gainetik hartu, eta, ohiturak emandako trebeziarekin, sartu naute mahai baten gainean prestatuta zegoen hil-kutxara. Euren tresnak batuz, alde egin dute dolu-agur bat zuzendu ondoren.

Irekita zegoen leihoa hertsu du Kaminok, eta ilundu da gela. Zirrikitu batetik sartzen den eguzkiaren argi izpietan dantzatzen daude hauts-hariak, eta Arga ibaiaren udako ur mantsoen hegaletan bizi diren igelen korrokkak dira bakardade haren sinfonia. Kaminoren negar-zotin isilak hausten dute uniformetasuna. Nigana hurbildu da, eta, mantsoki, eskuekin aurpegia ferekatu ondoren, ezpainak jarri dizkit aho ondoan. Bi malko anpolai erori dira bere begietatik nire masailetara, eta bata zapitxo batekin sikatu duen bitartean, bestea aurpegian jarri didaten krematan azkar labain egin, eta lepondoan sentitu dut bere epeltasuna. Begira geratu zait unetxo batez, eta, zuzenduaz bere soina, zerraldoaren ondoan dauden bi kandelatxoak pizteari ekin dio.

Ez nuen sinesten hil zorian izandako batzuk kontatzen zituzten istorioak: argi bat tunel baten bukaeran..., txit ongi aurkitzearen sentipena..., edo antzekoak. Baina, hara, non aurkitzen naizen inoiz pentsa izan ez dudan egoeran: nia zerraldo dagoen niri begira. Ez dut minik, arin sentitzen naiz, eta, harrigarriena, ez dut eztultxorik egiten. Ezkaba mendi gailurreko *San Kristobal* gotor-lekuan preso izan nintzenetik, nirekin, une oro, gau eta egun, lagun izan dudan bronkitisaren ahotsa. Kamino aulki baten jarri da kandelak piztu ondoren, eta, arrosarioa eskuan, eten-gabeko marmartxoan dabil noizbehinka arrosarioaren aleak erpuru eta erakuslearen hatz artean pasaraziz. Gela handia da, solairuko beste guztiak bezala: errotari aberatsen bizitoki izana. Gainbehera egindako ofizioak txirotu ditu pixkanaka bere biztanleak, eta hain espazio handian armairu bat, bi ahulki gaueko mahaitxoak eta betiko lekuan, barneko paretaren kontra, noizbehinka gure soinak jostatzen zuten ohea besterik ez dira; gainean, paretan eskegita, zelatari, alpazko Kristo bat iltzatuta duen zurezko gurutze bat. Gaur, sukaldeko mahaia jarri dute ehun beltz batez estalirik nire katabutari lekua egiteko.

Kamino arrosarioa bukatzeaz zela entzun dira sarrerako eskaileratan oin sendo batzuen urratsak; ate ingurura iristean, aldaba erabili ordez, eskua hertsu, eta hatz-koskorrekin jo ditu bost kolpe ohikoa duen erritmoa markatuz. Joseba

Iraola da, Ezkabako gotor-lekuan lagun-min egindako Darioren semea. Ia bi metro garaiko gizaseme gaztea, praka eta jaka berdez jantzita; larruzko gerriko zabala kanpotik, eskerreko sorbaldatik eskuineko gerri aldera larruzko xingola, bota beltzak eta, ohiko buztanen orde, grabatutako letoizko xafla zirkular bat zuen txapelak osatzen dute harresiz kanpoko polizia municipalen uniforme. Goiko aldetik dator, etxearen bigarren solairuko sarreratik. Argaren haserrealdiek erraz bereganatzen zituenez errota izan zenaren beheko planta eta lehen solairua, Kaminoren aitak bide zuzenago bat eraiki zuen Iruñeko sarrera nagusia izan zen aldapatik. Besapean zekarren berri-papera ohearen gainera jaurti, eta bi muxu eman dizkio Kaminori. Zabalik gelditu da berri-paperaren lehen orria: *Entzierroa* zuen titulartzat, zezenen korrikaldia bukatu eta lasterrera zabaltzen zuten berri-papera. “Adarkadaz hildako iruinseme bat gaurko entzierroan” zekarren letra larriz. Beherago, zehaztasun gehiago ematen jarraitzen zuen: “Santo Domingoko aldaparen hasieran, militarren ospitalea baino lehen, 70 urtetako korrikalari oso ezaguna adarkatu du *Miura* ganadutegiko “*Piyayo*” zezenak bularrean bihotzerainoko bidea eginez. Hilik zen osasun-zerbitzuak heldu direnerako. Hurbiletik hartutako argazki handi batek laguntzen zion testuari. Zezenaren eskuin adar puntak bularra ukitzen zion unea, eta korrikalaria aurrez-aurre gora begira belaniko. Honela zioen oinak: “Azken besarkada”.

Josebak beste aulkia leiho paretik hartu, eta Kaminoren albora hurbildu du. Eseriaz batera, bizkar gainetik besoa pasatuz, Kaminoren soina hurbildu du bere bular aldera, eta amultsuki xuxurlatu dio belarri: “Hala nahi izan du”.

Kaminok aurpegira begiratu eta dudakor: “Hori uste duzu?”

Josebak dio nire azken begiradak hori adierazi diola, baina ez du gogoz ase emakumea. Ez dela erraza begiradak ulertzea... Josebak onartu dio iritzia, baina goizean zehar bira asko eman diola atzo egindako osteratxoari, eta uste du zenbait ohartxo eman zizkiola, eta, gaurko entzierro aurretik izan duten elkarrizketan ere nabaritu duela zerbait berezia.

Gaurko egunez lau hilabete betetzen dira nire aita zendu zela, eta, hain maite zuen lagunarekin, biek zuten urteroko ohitura bizitzea erabaki nuen atzokoan. Hala, txupinazoaren ondoren nire lana bukatzean, udaletxe atzean dagoen Martzeliano ostatura, aurrez egindako zita-lekura, zuzendu nituen nire oinak. Mahai baten eserita zegoen nire zain gure Eusebio. Besarkada batez zoriondu, eta mokadutxoa eta baso bana ardo eskatu nion Lantz-ko mutiko zerbitzariari.

- Nola bizkarreratu duzu 70. urtea, Eusebio?
- Urteak joan bezala etortzen dira, baina euren zama ez da beti berdina. Azken urte honek asko makurrarazi nau. Hire aitaren agurrak oraindik tiraka jarraitzen dik leku ezezagunera, aingurak ur sakonetara bezala.

- Hasi berriak ditugu Sanferminak, eta, mokadutxo hau hartu ondoren, Errotxapea aldera joko degu usadioa betetzera. Gaurkoan, nire aitaren ordezkari bikaina nahi dut izan.
- Bai, aspaldiko ohiturak dituk, eta, aurten ere, beteko diagu.

Bidean behera entzierroko hesiak genituen alde bietara, eta prest zegoen baita ere Santo Domingoko korta. Berrogei metro beherago, zuen etxerako bidetxoa.

- Zenbat zor diodan Kaminori... Gazteago ginenean piztu zen gure arteko zerbait, eta makaldu nintzenean, lanerako gai ez izatean, oparitu zidan bere etxeko epeltasuna.

Zein emakume ona! aitortu zidan, eta beherantz jarraitu genuen, jakinean zu ez zinela etxean, ahizparenean ospatzen zenuela jaien hasiera. Magdalenako zubian jende andana zebilen: "Argaren zeharkaldia". Igerilari talde handi bat uretan irteerako agindua emateko zain, eta bozgorailuan Eusebiok ondo ezagutzen zuen ahotsa: 36ko gerran Iruñeko "Flechas negras" Falangeko gudalburuarena. Haren gizonak fusilatu zioten aita, eta Ezkabako gotor-lekura eramán bera; orain, kiroleko zenbait ataletan jarduten du, gaur bezala, diru ofizialak xahutzen. Bozgorailutik eman zioten hasiera zeharkaldiari, eta Eusebioren oinak igerilarien besoen abiadura hartu zuten ahots harengandik ahalik eta lasterren urruntzeko. Beunza kalean zehar abiatu ginen, eta "Tipula etxetik" pasatzean, oles egin zien Eusebiok Zirizatarrei. Preso izan zenean harrapatutako bronkitis kronikoak lanuzte asko egitera behartzen zuen, eta ezin izan zuen lan finko bat aurkitu. Etxe horretako nagusiak eman zion aukera bertako lurrak lantzen jarduteko, eta ez zion inoiz kontutan hartu bere lanuzteak. Ez zuen hori inoiz ahazten Eusebiok. Kale osoa igaro ondoren, "Lau haizeetako" biribilgunera iritsi, eta izen bereko ostatura sartu ginen bazkaltzera.

Alai zegoen Eusebio, eta jaki eta ardo onak eskatu zituen mahairako. Kafea hartzeko orduan, ostatuko nagusia, "Txiki Eugi"nean, erremolatxaren urtealdian, lan egiten zuen denboran ezagutu, eta lagun bilakatu zena gehitu zitzaigun mahaira cognac frantsesa eta hiru kopa eskuan zituelarik. Egunari zegokion zenbait kontu esan ondoren, Ezkabako tontorrera bideratu nuen solasa.

- Nola ezagutu zenuen nire aita San Kristobalen?, galdetu nion Eusebiori.
- Lubanarro batez inguratuta zegoen gotor-lekua, eta, egun batez, ahots ozenez izendatu gintuzten guztioi, berrogeita hamar bat lagun, atera gintuzten ate nagusitik kanpora, eta lubanarroaren kanpoaldeko ormaren erdi aldean zegoen zulo batera sartarazi ziguten zurubi batetik igoaraziz. Sei zigor-gela zeuden alde banatara mendi azpian. Lehenengo gelara soilik iristen zen argia, eta seigarreneraino sartu ninduten. Dario Iraola, zure aita, izan nuen gelakide.
- Nola konpontzen zintaten iluntasun hartan? Galdetu zuen ostatuko nagusiak.

- Ohitu egiten dira begiak iluntasunera, eta atetik iristen zen argi apurrarekin konpontzera iritsi ginen. Okerragoa zen hotza eta hezetasuna. Ordutik ez dut utzi eztegiari.
- Gose asko pasatu al zenuten? Jarraitu zuen nagusiak.
- Txantxa erabiltzen zuen beti Dariok galdera hori egiten ziotenean: “Gose asko, ez!. Bat bakarra, sartu gintuztenetik eta atera gintuzten arterainokoa”.
- Eta ihesaldi entzutetsu hura? Hainbeste hildako suertatu omen ziren hura? Zer gertatu zen? Aita ez zen orduko gertaerak kontatze lagun, eta, inoiz, zerbait ateratzen bagenion ere, labur gelditzen zen bere kontaera.
- Sukar handiarekin nengoen ni gau hartan, eta badirudi atea irekita utzi zituztela. Gure zuloetik denek egin zuten ihes, baina hire aitak, nire egoera ikusita, nirekin gelditzea erabaki zuen, eta, agian, horrek salbatu zion bizitza.
- Ihes egitea lortu zuten bi lagun azaldu ziren hemen babes eske, eta infernutik zentozela zirudien, gehitu zuen nagusiak.

Solasak beste bide askotarik egin zuen: trenen estazioko zenbait istorio, feria eguneko valentziarrak, hiru aldiz alargundu zen emakume itsusiarena, “Ave Maria”ko eskolak, gozo saltzailearen pasadizoak... Bukatzeko, Eusebiok altxa zuen kopa, eta bere azken urtebetetzea izango zela adieraziz: “Gora San Fermin!” batekin amaitu zuen jarduna.

Egindako bidea deseginez hurbildu ginen gure bigarren zita lekura: gaseko kortetara. Eusebioren ezaguna zen ate zaintzailea, eta ez genuen eragozpenik izan korridetarako zain zeuden zezenak ikusteko. Sei korrida zeuden kortetan, baina denei begiratu bat egin genien arren, hurrengo eguneko Miurekin entretenu zuen bereziki Eusebio.

- Zer iruditzen zaik gorrixka eper-begi hori?
- Dotorea da zezena, garaia, adar fina, badirudi geldi ezin horrekin harrotu behar dituela lurak.

Ateratzerakoan “Mayoralari” hurbildu zitzaion Eusebio zezen gorrixka eper-begiaren izena galdetzeraz. “Piyayo” erantzun zion. Ez zuen, ipuin sentikorreko gizontxoaren trazarik. Ahula eta maitagarria bazen hura, beldurgarria eta indartsua zen gure zezena. Ate-sarreratik berriro bueltatu zen Eusebio “Piyayori” azken begirada ematera.

Hor bukatu zen gure osteratxoa. Berriro zubia igaro, eta, agurtu ondoren, aldaparik hartu gabe, bideratu zen gure Eusebio ibai ondoko bidetik “Errotazar” etxera, zure etxera.

- Ez duzu uste, Kamino, bere bukaera ordua eta era berak aukeratu dituela?

- Agian bai, baina...

Ulertu naute. Dario hil zenetik erabakia nuen nola bukatu nahi nuen, baina ez zen erraza aukeratutako bidea, gaueko hamaiketan entzun nituen "entzierrillo"ko zintzarrien soinuak ohetik, eta *Piyayoren* begiradarekin hartu zidan loak.

Goizeko seietan jaiki, kantuak dioen bezala, eta laster abiatu naiz etxetik kanpo, aldapan gora, hasierako kortaraino. Ez didate oztoporik jarri begiradaxo bat emateko zezenei. Etzanda daude zezen zein joaldun guztiak *Piyayo* ez ezik, Ezkabarte aldera begira dago gotor-lekua suntsitu nahi baluke bezala; hala, nire irudimena besterik ez ote da...

Agurtu ditut arotzak, eta, mantsoki, urratsak neurtuz egin dut gora. Urrutitik jabetu naiz Josebaren presentziaz. Berak duen garaierarekin erraz nabarmentzen da uniforme berdea. Berarengana zuzendu naiz abiadurarik aldatu gabe. Nafarroako museora bideratzen duen eskaileratan dago bere lana betetzen. Joseba izan da lehena diosal egiten, nire barneko giroan murgildurik kostatzen egin zait lehen hitzak zuzentzea, eta, biok ere, ez gara izan hitz-jario. Susmatzen duela dirudi nire erabakiaren berri. Gai hutsalak erabili ditugu gure solasean: jende kopuruaren gorakada, azken urte hauetan agertzen diren amerikarrak, giroa... Hitzez baino jarreraz adierazi diogu gehiago elkarri. Ni baino urduriago dagoela dirudi. Zazpietarako bi minuturen faltan bostekoa luzatu diot, eta gogor eutsi dit une luze batez eskua. Begietara zuzendu dugu gure soa, eta malkoen atera nahia sumatu diot begietako distiraxoan. Hesia igarotzean, bihotzaren taupadak azkartu zaizkit, eta oinak mugitzen eta saltotxoak ematen hasi naiz inkontzienteki. Gaur ez dut egunkaririk behar eskuetan. Zezenak irtetean beherantz abiatuko naiz apur bat *Piyayoren* lerroan jartzeko. Eta, joaldunen artean ateratzen bada? Zer egin? Nola jokatu? Ez dut pentsatu ere egin nahi. Irteeraren bat aurkituko dut. Gaur izan behar du. Noizbehinka Ezkaba mendi tontorrera begiratzen dut, eta, bai, gaur... bai, gaur... errepikatzen du nire ez tul artekoaren hatsak.

San Cernin elizako erlojuaren kanpaiak hasi dira jotzen, eta prest duten suzirari eman diote su arotzek. Zeruan eztanda egin duenean kortako atea ireki dute, eta atera da zezen tropela joaldunekin. Une batez, lausotu egin zait ikusmena, tropela bere osoan ikusten dut, baina ez besterik. Hasi naiz garbi ikusten. Bi joaldun dira aurretik, baina aldapan gora *Piyayo* aurreratu zaie. Eskuin aldetik dator nire nahia betetzen. Beheranzko karrera mantsoa eten dut, eta goranzko bidean hasi naiz korrika, begi ertzeekin *Piyayoren* karrera kontrolatuz. Distantzia egokia zela erabaki dudanean lurrera bota dut soina, eta, azkar, belauniko jarri eta biratu naiz. Aurrez aurre aurkitu naiz *Piyayoren* aurpegiarekin. Bertatik bertara nuen haren hile zuriz inguratutako begi bat, kolpe bat sentitu dudanean bularrean. Metro batzuetara jaurti nau, eta, eten gabe, jarraitu du bere karrera.

Lurrean etzanda, ezker aldera zuzendu dut begirada berdez jantzitako gizonen bila, azken uneko heldulekuen bila. Han neukan Joseba metro gutxitara, eta haren aurpegian finkatu dut soa. Oinaze aurpegi hartan aske ziren jada bi malko, eta, begi haiei zuzenduta, irri bat marraztu dut airean amestutako gauak maitekiro biltzen nauen bitartean.

Isabel Larrañeta Legarra